



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko uztailaren 26a

102. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bere ustez Kontuen Ganbera dela Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizaziorako kanpo-organoa. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Gazolazko Kontzejuari buruzko 2015eko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (3. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bitartez Nafarroako Parlamentuak adierazten baitu bere ustez Kontuen Ganbera dela Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizaziorako kanpo-organoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko uztailaren 25ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak adierazten du bere ustez Kontuen Ganbera dela, foru araubidearen indarrez, Foru Komunitateko sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko eta finantzarioaren fiskalizaziorako kanpo-organoa, Foruaren Hobekuntzan egiten den eskumen-banaketa dela medio, zeina ondorio logiko bezala eratortzen baita Nafarroaren eskubide historikoen nahiz ogasun- eta finantza-arloetan daukan araubide berezi eta berekitik.

2. Nafarroako Parlamentuak azpimarratzen du ezen Hobekuntzako 18. bis artikulua Nafarroaren eta Estatuaren artean hitzartutako konpromisozko formula bat jasotzen duela.

3. Nafarroako Parlamentuak deritzo Kontu Auzitegiaren eskaerak gainditu egiten duela Hobekuntzan hitzartutako zuzenbidezko esparrua.

4. Nafarroako Parlamentuak aldeztu du Kontuen Ganberaren eta Kontu Auzitegiaren arteko lankidetzaren instituzionalaren bidetik ebatz dadila sortu den eskumen-gatazka, iraganean egin izan den bezala.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio, Foru Hobekuntzaren arabera Nafarroaren foru araubidea zaintzeko zeregina duen erakundea izaki, jakinaraz diezaion Kontu Auzitegiak aurrera segitzen baldin badu egin nahi duen fiskalizazioarekin, araubide horren defentsarako egoki diren neurriak hartze aldera”.

Iruñean, 2017ko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Gazolazko Kontzejuari buruzko 2015eko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 19an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Gazolazko Kontzejuari buruzko 2015eko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Gazolazko Kontzejuari buruzko 2015eko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (4. or.).

II. Iritzia (7. or.).

II.1. 2015eko kontu orokorrari buruzko auditoria finantzarioko iritzia (8. or.).

II.2. Legezkotasuna betetzearen fiskalizazioari buruzko iritzia (9. or.).

III. 2008ko 9.000 euroko txekearen zertarakoari buruzko ondorioa (10. or.).

IV. Kontzejuaren 2015eko kontu orokorraren laburpena (10. or.).

IV.1. 2015eko ekitaldiko aurrekontu likidazioaren egoera-orria (11. or.).

IV.2. 2015eko ekitaldiko aurrekontu-emaitza (11. or.).

IV.3. Diruzaintza-gerakina 2015eko abenduaren 31n (11. or.).

IV.4. 2015eko abenduaren 31ko egoeraren balantzea (12. or.).

IV.5. Galeren eta irabazien kontua, 2015eko abenduaren 31n (13. or.).

V. Gazolazko Kontzejuari buruzko iruzkinak eta ondorioak (14. or.).

V.1. 9.000 euroko txekea (14. or.).

V.2. "Gazolazko Jarduera Ekonomikoen Arloa" sektorea (16. or.).

V.3. 860.000 euroko mailegua eta Gazolazko Kontzejuaren egoera ekonomikoa (18. or.).

I. eranskina. Aurrekontu-betetzea 2008/2015 (20. or.).

II. eranskina. Kontzejuburuak 9.000 euroko txekea dela-eta egindako idazkia. (21. or.).

III. eranskina. Hautetsiei ordaintzarekin lotutako dokumentuak. (23. or.).

Gazolazko Kontzejuari buruzko behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (29. or.).

Aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (29. or.).

I. SARRERA

2016ko abenduaren 12an, Gazolazko kontzejuburuak (2016ko urtarriletik dago kargu horretan) Kontuen Ganberari eskatu zion Kontzejuaren 2015eko kontuen auditoria egin zezan eta iker zezan zertara bideratu zen Kontzejuari 2008an kargatu zitzaion 9.000 euroko txekea. 2008ko kontuak 2012ko otsailaren 1ean onetsi ziren. Halaber, 2012an 2009ko, 2010eko eta 2011ko kontuak onetsi ziren.

Kontzejuburuak emandako informaziotik ondorioztatzen da Kontzejuko zenbait bizilagunek 2008ko eta hurrengo urteetako kontuak eta aktak erreklamatu zituztela, eta 2015eko apirilaren 7an bizilagun horiek idazki bat aurkeztu zutela Foru Komunitateko Fiskaltzan, honako hauek erreklamatzeko:

1- Kontzejuburuak 2008ko urtarrilaren 25eko 9.000 euroko banku-txeke bati emandako erabilerari buruzko informazioa.

2- Kontzejua premiatzea bizilagun interesdun ororen eskura jar ditzan jada onetsita dauden kontuak eta Kontzejuko Batzarrak hartutako erabakien aktak.

Fiskaltzak erabaki zuen salatutako egitateak ez direla delitua, zeren eta salatzaileen asmoa baita Fiskaltzari eskatzea Kontzejua premia dezala beraiei aukera eman diezaien txeke bati, onetsitako kontuei eta Kontzejuko Batzarraren erabakien aktei buruzko informazioa eskuratzeko.

Fiskaltzaren arabera, *“ez da bidezkoa zigor-prozedura bat irekitzea, gutxienez ere arloan eskumenak dituen Kontu-hartzailetzako Administrazioak aurrez jardun gabe”*.

Geroztik, 2015eko maiatzaren 4an, bizilagun horiek gora jotzeko errekurtsio bat aurkeztu zuten Nafarroako Administrazio Auzitegian, Kontzejuak dokumentazioa, aktak eta kontuak eskuratzeko eskaerei ezezkoa eman izatearen aurkakoa.

2015eko abuztuaren 11n, Nafarroako Administrazio Auzitegiak errekurtsioa baietsi eta deklaratu zuen errekurtsio-egileek eskatutako dokumentazioa eskuratzeko eskubidea dutela.

2016ko abenduaren 12an, kontzejuburuak 2015eko kontuen auditoria bat eskatu zion Kontuen Ganberari, Kontzejuaren 2016ko urriaren 24ko akordio bati jarraituz; izan ere, horren bidez honako hau erabaki zen:

“kontu horiek Kontuen Ganberari helaraztea, haien auditoria egin dezan, zeren eta aztarna batzuk baitaude pentsarazten dutenak kontu horiek ez dutela zehatz islatzen Gazolazko Kontzejuaren finantza-egoera”.

Aurrekoa gorabehera, erabaki horretan bertan, Kontzejuaren 2015eko kontuak onetsi ziren.

Bestetik, azpimarratu beharra dago Kontzejuaren egoera ekonomikoa jardura ekonomikoen sektorearen urbanizatzeko eragiketarik mediatizatua dagoela; izan ere, eragiketa horretan parte hartu du urbanizazio osoaren ehuneko 4,95 egiten duten lurren jabe gisa.

Kontzejuaren eskaera hau betetze aldera, Kontuen Ganberaren 2017rako urteko fiskalizazio-programan sartu zen eskatutako lan hori egitea.

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Gazolazko Kontzejuaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu du. Kontu hori, funtsean, honako hauek osatzen dute: aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria, aurrekontu-emaizta, diruzaintza-gerakina, balantzea eta emaizta ekonomiko eta ondarezkoen emaitzen kontua.

Kontu orokorraren finantza-auditoriarekin batera, legezkotasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Gazolazko Kontzejuak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketarik eta 2015eko ekitaldiko kontu orokorrean jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

2008ko eta 2009ko kontuak eta 2010eko kontuen zati bat berrikusi dugu, 9.000 euroko txekearen jarraipena egiteko. Kontzejuaren 2010etik 2014ra bitarteko ekitaldietako kontu orokorrak auditatu gabe daude. Ekitaldi horiei buruzko informazioa, txosten honetan jasotakoa, informazio-hutsez ematen da.

Gazolazko Kontzejuari 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere.

Aurrekontuen eta kontuen onespenerari dagokionez, araudi indardunak –Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Tokiko Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta haiek garatzen dituzten dekretuak– ez du kontzejuen berariazko aipamenik egiten; hori dela eta, toki entitateentzat, oro har, ezarritako araudia izanen zaie aplikatzekoa.

Kontzejuak aurrekontuaren kontabilitate-kudeaketarako, bidezkoa den programa informatikoaren birtartez, Nafarroako Toki Administrazioarako Kontabilitate Sinplifikatuaren Instrukzioa onesten duen 273/1998 Foru Dekretuan araututako araubide sinplifikatua aplikatzen du.

Gazolazko Kontzejuak Zizur Zendeako Udalaren bederatziko kontzejuetakoa bat da. 4,5 Km²-ko azalera du eta 135 biztanle zituen 2015ko urtarrilaren 1ean. Udalak guztira dituen 3.751 biztanleetatik, Kontzejuak ehuneko lau dauzka.

Kontzejuak ez du zerbitzuak emateko tresna izaerako enterrik, eta haren datu ekonomiko eta langileei buruzko datu garrantzitsuenak honako hauek ziren 2015eko ekitaldiaren itxieran:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2015-12-31n
Gazolazko Kontzejuak	66.135	31.072	0

Kontzejuaren **egitura organikoa** batzar bat da, kontzejuburu batek eta lau kontzejukidek osatua.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeko 39. artikuluan, toki entitateei dagozkien eskumenen banaketa dela eta, honako hauek ageri dira.

“Kontzejuen kudeaketa eta administrazio organoetara dagokien ondoko arlo hauei buruzko eskumenen erabilpena:

a) Ondarearen administrazioa eta kontserbazioa, bai eta haren aprobetxamendua eta erabilera antolatuta eta arautzea ere; b) Bere mugapeko landa bideen mantentze- eta zaintza-lanak, baita Kontzejuaren interesekoak baizik ez diren erabilera eta; c) Udalaren aginduzko txosten loteslea jaso ondoren, planeamenduaren araberrako hirigintza-lizentziak ematea; d) Bideak garbitzea; e) Argiteria publikoa; f) Hilerrien zaintza eta mantentze lanak; g) Kontzejuko artxiboa; h) herriko jaiak”.

Beren eskumenak betetzeko, martxoaren 10eko Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legeko 5. eta 7. artikuluetan honako baliabideak esleitzen dizkie kontzejuetara:

“a) Tributuz besteko baliabideak:

- 1. Berezko diru-sarrerak edo Zuzenbide pribatukoak.*
- 2. Herri-aprobetxamenduak.*
- 3. Salneurri publikoak.*
- 4. Isunak.*
- 5. Bestelako prestazioak.*
- 6. Zuzenbide publikoko bestelako diru-sarrerak.*

b) Estatuaren tributuetako partaidetza.

c) Nafarroako tributuetako partaidetza.

d) Diru-laguntzak.

e) Kreditu eragiketak.

Kontzejuak ez dute zilegi izanen tasak eta kontribuzio bereziak beste tributurik ordainaraztea.”

Kontzejuan ematen diren zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	Kontzejua	Mankomunitatea	Beste batzuk
Kontzejuak ematen dituen zerbitzuak				
Kale garbiketa				
Argiteria		x		
Hilerria		x		
Udalak ematen dituen zerbitzuak				
Zerbitzu administratibo orokorrak-Infocal	x			
Hirigintza	x			
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	x			
Kontzejuentzako idazkari aholkularia	x			
0-3 urtekoen ikastetxea (Zizur Txikian)	x			
Uraren ziklo integrala			x	
Hiri hondakinak			x	
Taxi zerbitzua, eskatuta ematen dena	x			
Kirol eta kultur jarduerak kudeatzea	x			
Udalaren kirol instalazioak (Zizur Txikian eta Azterainen)	x			x
Euskara ikasteko laguntzak	x			
Errolda-Erregistro Zibila-Bake Epaitegia	x			
Diru-bilketa exekutiboa				x

2015eko aurrekontua 2015eko urtarrilaren 8an onetsi zuen Kontzejuaren Batzarrek.

Txostenak bost atal ditu, sarrera hau barne. Bigarrenean, auditoria finantzarioari buruzko iritzia ematen dugu, bai eta Kontzejuak 2015eko kontu orokorrean legezketasuna bete izanari buruzkoa ere; hirugarrenean, 9.000 euroko txekearen zertarakoari buruzko ondorioa azaltzen dugu; laugarren atalean, kontu orokorraren kontabilitateko egoera-orri nagusien laburpen bat jaso dugu. Bosgarrenean, 9.000 euroko txekeari, "Gazolazko Jarduera Ekonomikoetarako Arloa" sektorearen urbanizazioari eta egoera ekonomiko-finantzarioari buruzko iruzkinak eta ondorioak bildu ditugu. Hiru eranskin jarri ditugu: 2008/2015 urteetako aurrekontu-likidazioa aurkezten duena, Kontzejuak berak onetsitako kontuei jarraituz; 9.000 euroko txekea aipatzen zuen dokumentu bat, eta hautetsientzako ordainsariei buruzko beste batzuk.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Gazolazko Kontzejuko kideei, Zizur Zendeako Udaleko langileei eta Konpentsazio Batzarreko aholkulariei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

II. IRITZIA

Gazolazko Kontzejuaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazioa egin dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako IV. atalean.

KONTZEJUAREN ERANTZUKIZUNA

Kontzejuaren Batzarra da kontu orokorra formulatzeko eta aurkezteko ardura duena, eta halako moduz egin behar du non zehatz irudikatuko baitituzte Gazolazko Kontzejuaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat. Halaber, iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren arduraduna da.

2015eko kontu orokorra 2016ko urriaren 24an onetsi zuen Kontzejuko Batzarrak.

Kontzejuak, kontu orokorra egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du kontu orokorrean islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontroleko sistemak ezarri beharko ditu.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea 2015eko kontu orokorrari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontroleko erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorrean arrazoizko segurtasun bat lortzea eta hartan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabekoak izatea. Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplikatu ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko kontu orokorrean adierazitako zenbatekoei eta informazioari buruz, bai eta araudian ezarritako alderdi garrantzitsuak fiskalizatutako ekitaldian zehar betetzeari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera koak dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, bai akats hori iruzurraren nahiz oker baten ondoriozkoa denean, bai legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere.

Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan – entitateak kontu orokorra egin dezan eta legezkotasuna betetzen dela bermatzeko garrantzitsua da hori– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta zuzendaritzak egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorraren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantza-auditoriako eta legezkotasunaren betetzearen fiskalizazioko gure iritziari eusteko.

II.1. 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

Aurkako iritziaren oinarria

a) 2015eko banku-kontu batean ez da mugimendurik kontabilizatu, eta akats edo anomalia batzuk aurkitu dira zenbait kontabilitate-oharretan, zeinek honako eragin hau baitute 2015eko kontabilitateko egoera-orrietan:

Kontzeptua	Onetsitako kontuak	Doituak
Aitortutako betebeharrak	66.135	72.414
Ordainketak	24.575	27.359
Itxitako aurrekontuetako ordainketak	6.000	8.437
Itxitako aurrekontuetako kobrantzak	642	4.956
Aurrekontuz kanpoko BEZen kobrantzak	778	1.684
Itxitako aurrekontuetako gastuak*	335.169	382.002

*Itxitako gastu-aurrekontuetan ageri den aldeak Konpentsazio Batzarraren zorrean du jatorria, zeren eta beren gastu-aurrekontuetan islatu ez diren errekaru eta kostu batzuk bai baitaude.

Banku-kontu bateko mugimenduetan kontabilizatu ez izanaren arrazoia da 2015eko urtarrilaren 1eko eta abenduaren 31ko saldoa 0 eurokoa zela. Hori dela eta, oker pentsatu zen kontu horretan ez zela mugimendurik izan, bana ez da horrela izan. 2014ko faktura batean diru-sarrera bat gertatu zen, Cepsaren izenean; horrenbestez, ez zen itxitako ekitaldietako edo aurrekontuz kanpoko mugimendurik izan, ez eta banku-mugimendurik ere. Kontzejuak La Caixarekin daukan zorra dela eta, diru-sarrera hori gertatu bezain laster, Kontzejuak entitate horrekin daukan zorrari aplikatu zitzaion.¹

b) Zorraren egoera-orriak emandako maileguaren printzipala baizik ez du jasotzen, 860.000 euro, baina ez ordainketa-ezak sortutako zorra, zeina, entitateak berretsitakoaren arabera, 1.599.300 eurokoa baitzen 2015eko abenduaren 31n. Zor horrek ez du islarik balantzean.

c) Balantzearen arabera, ibilgetu materialaren balioa 6.166.606 eurokoa da, eta herri-ondasunena, berriz, 21.499 eurokoa. Ezin izan dugu eskuratu zenbateko horiek justifikatuko duen inbentariarik edo xehakatzerik.

Zendeako Udaleko idazkariak egindako ziurtagiriaren arabera, Udalaren katastroan Gazolazko Kontzejuaren izenean ageri diren finkek 2.626.940 euroko katastro-balioa dute hiri-lurretan, eta 33.803 eurokoa, berriz, landa-lurretan.

d) Balantzeak ez du jasotzen Konpentsazio Batzarrarekiko zorra, zeina, entitateak berretsi duen bezala, 438.128 eurokoa baitzen 2015eko abenduaren 31n.

e) Ezin izan dugu eskuratu 2014. urteari buruzko dokumentaziorik; hori dela eta, ez dago bermaturik 2015ean egin ziren baina aurreko ekitaldiarekin lotura zuten eragiketak kasu guztietan zuzen erregistratu direnik.

Finantza-auditoriako iritzia

Gure iritzian, "Finantza-iritziaren oinarria" atalean azaldutako egitateek daukaten eragin oso aipagarria dela eta, 2015eko ekitaldiko kontu orokorrak ez du ondareari buruzko, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuen likidazioari buruzko eta Gazolazko Kontzejuaren 15eko abenduaren 31ko finantza-egoerari buruzko irudi zehatzik ematen, ez eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei buruzkorik ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

Azpimarra-lerrokada

Iritzian eraginik izan gabe, arreta deitu nahi dugu Gazolazko Kontzejuaren egoera ekonomiko eta finantzarioari buruz; izan ere, desoreka finantzarioa dagoela jo dezakegu, ezin baitie aurre egin hartutako betebeharrei.

¹ Kontzejuburuaren alegazioen ondorioz gehitutako paragrafoa.

Egoera horrek jatorria du Jarduera Ekonomikoen Arloan zuen partaidetzak sortuta gastua, zeren eta eskuratutako lurzatiak saldu ez dituenek, ezin baitie aurre egin hartutako betebeharrei konpentsazio Batzarraren derramak ordaindu eta itundutako mailegua itzultzeko.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEAREN FISKALIZAZIOARI BURUZKO IRITZIA

Ez dira bete aurrekontuen arlok kontabilitate-araudia; hori dela eta, Gazolazko Kontzejuaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorrean jasotako jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa ez datoz bat, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin

III. 2008ko 9.000 EUROKO TXEKEAREN ZERTARAKOARI BURUZKO ONDORIOA

Kutzako kontaketen libururik ez dagoenez, inongo ekitalditan kutxako kontaketarik egin ez denez, kontabilitatea atzerapenez eraman denez –eta, horrenbestez, kontuen onespenean atzerapenak gertatu direnez–, informazio kontraesankorra duten dokumentuak daudenez, eta txekeari buruz banku-entitateari galdetu zaizkien alderdiei buruzko erantzunik jaso ez dugunez, ezin izan dugu ebidentzia kontrastatu eta behar adinakorik lortu finantza-entitatean 2008ko urtarrilaren 25ean kargatutako 9.000 euroko txekearen justifikazioari buruzko iritzia emateko.

IV. KONTZEJUAREN 2015eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren, 2015eko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak azaltzen ditugu, Kontzejuak onetsitakoak:

IV.1. 2015eko EKITALDIKO AURREKONTU LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA

Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

(Eurotan)

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantsak	Kobratzeko dagoena	Betetakoa (%)
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak.	1.000	0	1.000	279	279	0	28
4. Transferentzia arruntak	18.700	0	18.700	19.775	19.775	0	106
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	10.450	0	10.450	11.018	11.018	0	105
Guztira	30.150	0	30.150	31.072	31.072	0	103

Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetakoa (%)
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	28.050	0	28.050	26.532	22.097	4.434	95
4. Transferentzia arruntak	50	0	50	41	41	0	82
6. Inbertsio errealak	2.050	0	2.050	39.562	2.437	37.125	1.930
Guztira	30.150	0	30.150	66.135	24.575	41.559	219

IV.2. 2015eko EKITALDIKO AURREKONTU-EMAITZA

(Eurotan)		
Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	38.148	31.072
- Aitortutako betebeharrak	31.436	66.135
= Aurrekontu-emaiza	6.712	-35.063
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	0	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	0
+ Diruzaintza-gerakin likidoarekin finantzatutako gastuak	0	0
= Aurrekontu-emaiza doitua	6.712	-35.063

IV.3. DIRUZAINZA-GERAKINA 2015eko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2014ko ekitaldia	2015eko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	18.998	10.998
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	15.359	0
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	0	14.717
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	3.640	3.640
(-) Bilketa zaileko aurrekontu-eskubideak	0	-7.359
(-) Bilketa zaileko aurrekontuz kanpoko eskubideak	0	0
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	346.785	383.052
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	13.309	41.559
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	327.151	335.169
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	6.324	6.324
(+) Diruzaintzako funts likidoak	8.009	9.147
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	-319.777	-362.907
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-319.777	-362.907

IV.4. 2015eko ABENDUAREN 31ko EGOERAREN BALANTZEA

Aktiboa

Deskribapena	2014	2015
A. Ibilgetua		
1. Ibilgetu materiala	6.166.606	6.166.606
2. Ibilgetu ez-materiala	0	0
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	0	0
4. Herri-ondasunak	21.498	21.498
5. Finantza-ibilgetua	0	0
C. Zirkulatzaila		
7. Itxitako aurrekontuetako zordunak	1.986	18.357
8. Aurrekontuko zordunak	15.359	0
9. Finantza-kontuak	8.009	9.147
Aktiboa, guztira	6.213.458	6.215.608

Pasiboa

Deskribapena	2014	2015
A. Funts berekiak		
1. Ondarea eta erreserbak	5.866.075	5.828.057
2. Entregaturiko ondasun eta eskubideak	0	0
3. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa	599	4.499
C. Epe luzeko zorrak		
4. Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	0	0
D. Epe laburreko zorrak		
5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	333.475	341.493
6. Aurrekontuko hartzekodunak	13.309	41.559
Pasiboa, guztira	6.213.458	6.215.608

IV.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTUA, 2015eko ABENDUAREN 31n

Ekitaldiko emaitza arruntak

Deskribapena	2014	2015	Deskribapena	2014	2015
61 Langile-gastuak	0	0	70 Salmentak	244	279
62 Finantza-gastuak	0	0	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	14.883	11.018
64 Lanak, hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	23.930	26.532	72 Ekoizpenari lotutako zergak	0	0
67 Transferentzia arruntak	41	41	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	0	0
68 Kapital transferentziak	0	0	76 Transferentzia arruntak	23.021	19.775
69 Kalkulatutako gastuak	0	0	77 Kapitalaren gaineko zergak	0	0
D80 Emaitza arrunt negatiboa	0	0	78 Bestelako diru-sarrerak	0	0
D82 Inbertsioen salmenten galerak	0	0	H80 Ekitaldiko emaitza arrunta	14.176	4.499
D83 Aktiboen salmenten galerak	0	0	H82 Inbertsioen salmenten irabaziak	0	0
D84 Itxitako aurrekontuetako bajak eta ezeztatzeak	14.287	0	H83 Aktiboen salmenten irabaziak	0	0
			H84 Itxitako aurrekontuetako altak eta preskripzioak	708	0
D89 Ekitaldiko emaitza negatiboa	0	0	H89 Ekitaldiko emaitza positiboa	599	4.499

V. GAZOLAZKO KONTZEJUARI BURUZKO IRUZKINAK ETA ONDORIOAK

I. eranskinean, informazio gisa, 2008tik 2015era bitarteko aurrekontu-betetzea ematen dugu, Kontzejuak onetsitako kontuetatik eratorri bezala.

2015eko kontuei buruzko gure aurkako iritzia kontuan hartuta, eta kontuan hartuta, halaber, 2010eko ekitalditik 2014ko ekitaldira bitartekoak ez ditugula fiskalizatu, ez dugu haiei buruzko analisi edo iruzkinik egin; halere, V.3. atalean Gazolazko Kontzejuaren egoera ekonomikoa iruzkindu dugu.

V.1. 9.000 EUROKO TXEKEA

2008ko urtarrilaren 25ean, La Caixako kontuan 9.000 euroko kargu bat egon zen, 0.712.247-0 zenbakiko txekearen bitartez egina².

Datarik gabeko dokumentu batean jasota dago, orduko kontzejuburuak sinatua, non honako hau aipatzen baitu *“ez dugu hura ordaindu izanari buruzko erreferentziarik”*. (II. eranskina)

Banku-eragiketa horren zertarakoari buruzko dokumentaziorik ez dagoenez, Kontzejuak jo zuen, kontabilitatearen ikuspuntutik, Kontzejuaren kutxan diru-sarrera bat izan zela.

Hori dela eta, inongo ekitalditan kutxa-kontakteten edo kontakteten libururik ez dagoenez, eskudiruko kutxako kontuaren kontabilitate-egoera aztertu dugu.

Horri buruz esan behar dugu saldo negatiboak dituela zenbait garaitan, eta horiek banku-kontuetatik egindako intsuldaketekin konpentsatzen direla; kontabilitatearen arabera kutxa bidez egindako ordainketek sortuak dira. Logikoa denez, banku-kontu batek saldo negatiboak izan ditzakeen bitartean, bankuak hori baimentzen badu, kutxako kontu batean horrelakorik ezin da gertatu.

Kutxan erregistratutako kontabilitate-oharretan, Nuevo Gazólaz hauteskunde-taldeari egindako ordainketak ageri dira, guztira 9.000 euro egiten dutenak, honako data hauetan:

Data	Kutxan kontabilizatu-tako ordainketa	Kontzejuko Batzarrak onetsitako zenbatekoa
2009-12-31n	2.400	2.131,50
31-07 -2010	2.400	2.131,50
31-12 -2010	2.400	2.131,50
30-06 -2011	1.800	2.131,50
Guztira	9.000	8.526,00

Kutxako lau kontabilitate-oharrak direla eta, ordaintzeko betebeharrari buruzko dokumentuaren eranskin bat badago, orduko kontzejuburuak sinatua, zeinean adierazten baita Nuevo Gazólaz hauteskunde-taldeak zegokion diru-zenbatekoa jasoa zuela *“hautetsientzako ordainsari gisa, eta dokumentu hori hartu-agiritzat balio zuela.”* Ordainketa eskudirutan egin da.” (Ikus III. eranskina)

Ez dago 2011ko lehen seihilekoari buruzko 1.800 euroko ordainketa-betebeharrari buruzko dokumenturik.

Ez daukagu ebidentziarik 2009., 2010. eta 2011. urteetan ordainketa horiek egin izanari buruz, banku-entitate batetik ateratako 9.000 euroko funtsekin, hain zuzen 2008ko urtarrilaren 25ean kargatutako txeke baten bidez.

Halaber, nabarmendu beharra dago Kontzejuaren 2011ko maiatzaren 24ko bilkuran, zeinean 2008ko kontuak aurkeztu baitziren onesteko *“puntu hori mahai gainean utzi zela, hurrengo bilkura batean onesteko”*, eta kontzejuburuak, erantzun batean, honako hau esan zuela: *“Arbisuren izenean dagoen taloi bat da, 9.000 eurokoa, zer den ez dakiguna, eta 2008ko urtarrilaren 25ean*

² Banku-entitateari txeke horri buruzko informazioa eskatu diogu, baina ez dugu erantzunik jaso.

eman zela. Dirua eskudirutan atera eta ordaindu egin zen, eta ez dakigu zer den. Taloitegian, Arbisu ageri da. Orain dela 6 hilabete taloitegia agertu zen, eta datu horiekin Toki Administrazio Departamentura joan gara, eta eman diguten konponbidea da idazki bat erredaktatzeko, esanez 2008ko urtarrilaren 25ean 9.000 euroko taloi bat ordaindu zela, eta ez dela gogoratzen hartzailea nor den”.

Kontzejuaren 2008ko, 2009ko eta 2010eko kontuak 2012an onetsi ziren.

Gure ustez, Kontzejuaren kontabilitatean aurkitutako inkoherentziengatik eta atzerapenengatik, banku-entitatearen erantzunik jaso ez delako txekea dela eta galdetutako gai batzuei buruz eta aurrez komentatu dugun dokumentazioaren edukian ageriko kontraesana dagoelako, 9.000 euro horien zertarakoa ez dago justifikatuta.

Azken batean, finantza-entitate bateko funtsak, 9.000 euro, taloi baten bitartez erabiltzeko eragiketa bat da, egiaztagiririk egon gabe, eta eragiketa hori Kontzejuaren kutzako kontuan egingdako diru-sarrera baten gisara jaso zen kontabilitatean.

Gainera, ez egiaztagiririk ez ordaintzeko betebeharrari buruzko dokumenturik ere ez dago 2008an finantza-entitate bati kargatutako 600 eta 300 euroko bi ordainketa direla eta.

V.2. "GAZOLAZKO JARDUERA EKONOMIKOEN ARLOA" SEKTOREA

"Gazolazko Jarduera Ekonomikoen Arloa" sektorea merkataritzako industrialde bat ezartzeko sortu zen. Hartan, honako jabe hauek hartzen dute parte:

		Partaidetza (%)*
Entitate publikoak:	Gazolazko Kontzejua	4,95
	Cendea de Cizur	2,34
	Barañaingo Udala	3,15
Iberdrola Inmobiliaria		33,12
Beste entitate pribatu batzuk, % 10etik beherako partaidetzekin		56,44
		100,00

*Urteak joan urteak etorri, aldaketak gerta daitezke jabeen partaidetzan, nagusiki salmenten ondorioz.

Hirigintza jarduera konpentsazio batzar baten bidez egiten da. Horrek esan nahi du jabe guztiek Konpentsazio Batzarraren partaide direla, eta batzar hori arduratzen dela obrak egiteaz eta jabe bakoitzari zenbatekoak kobratzeaz, partaidetzan duten ehunekoaren arabera.

Hirigintza-jarduera horren emaitza da Gazolazko Kontzejua bi lurzati lortu zituela sektorean: bata ehuneko ehunaren jabetzarekin eta bestea Zizur Zendeako Udalarekin partekatua. Haien katastro balioak 1.156.824 eta 138.437 eurokoak dira, hurrenez hurren.

Urbanizazioa ez da amaitu, eta egiteko gelditu den alderdi garrantzitsuena hornidura elektrikoa da.

2007tik 2016ra, Batzarrak 1,27 milioi euro egiten duten derramak igorri dizkio Kontzejuari. Horiei atzerapenengatiko errekarguak eta erreklamazioengatiko kostuak gehituz gero, 1,4 milioi euro dira. Hona hemen xehetasunak:

Data	Kontzeptua	Printzipala	Errekarguak	Ordainketak	Ordaintzeke dagoena	Gauzatu gabeko saldoa
2007	Urbanizazio gastuen 1. derrama	38.911				
2007/06/29	1. derramaren ordainketa			38.911	0,00	
2007	Urbanizazio gastuen 2. derrama	63.369				
2007/12/28	2. derramaren ordainketa			63.369	0,00	
2008/05/05	Urbanizazio gastuen 3. derrama	114.840				
2008	3. derramaren erreargua		3.210			
2008/11/14	3. derramaren ordainketa			118.050	0,00	
2008/07/01	Urbanizazio gastuen 4. derrama	229.680				
2008	4. derramaren erreargua		4.349			
2008/11/14	4. derramaren ordainketa			234.029	0,00	
2008/12/02	Urbanizazio gastuen 5. derrama	287.100				
2008/11/27	5. derramaren ordainketa			287.100	0,00	
2009/05/01	Urbanizazio gastuen 6. derrama	315.810				
2009/06/05	Zatikaturako atalaren ordainketa 2009/03			220.871	94.939	94.939
2009/11/10	6. derramaren erreargua		9.494		9.494	104.433
2010/09/01	ZAT./2010/20 7. derrama	175.230			175.230	279.673
2011/01/24	7. derramaren erreargua		17.523		17.523	297.186
	Erreklamazio judiziala					297.186
	Kostuak, guztira		22.639			
	Ordaintzeko dauden kostuak, guztira		16.275			
	Interesak, guztira		56.509		95.423	
	Zor judiziala, guztira					392.608
2014/06/03	8. derrama	6.435			6.435	399.043
2014/11/05	8. derramaren erreargua		643		643	399.687
2015/01/04	ZAT./2015/18 9. derrama	37.125			37.125	436.812
2015/08/31				1.218		435.593
2015/08/31				1.218		434.375
2015/10/06	ZAT./2015/25 10. derrama	3.753			3.753	438.128
2016/01/31	9. derramaren erreargua		3.712		3.712	441.841
2016/01/31	10. derramaren erreargua		375		375	442.216
2016/05/17	ZAT./2016/03 11. derrama	3.941			3.941	446.157
2017/02/06	11. derramaren erreargua					
	Guztira	1.276.195	134.730	964.767	446.157	
	Lurzatiaren adjudikazioa			392.608		53.549
2017/02/06	11. derramaren erreargua Igorri gabea		394			394

Taulan, bi bloketan bereizi ditugu derramak, zeren eta Batzarrak zazpigarren derramara birtarte zegoen zorrarengatiko erreklamazio bat egin baitu. Zor den zenbatekoa 297.185,75 eurokoa da.

2013ko uztailaren 10eko epaiak Konpentsazio Batzarrak aurkeztutako demanda baietsi zuen, eta Gazolazko Kontzejua zigortu zuen kostuak eta interesak ordaintzera; horrenbestez, guztizko zenbatekoa 392.608,41 eurokoa da.

Zenbateko hori konpentsatzeko, Konpentsazio Batzarrak Kontzejuaren jabetzakoa den "Jar-duera Ekonomikoen Arloko" bi lurzati enbargatu ditu. Eroslerik ez dagoenez, zorraren zenbatekoan adjudikatu dio bere buruari.

Eragiketa osoaren laburpen gisa, ondoriozta dezakegu Kontzejua, zeina "Jarduera Ekonomikoen Arloaren" lurren % 4,95eko jabea baita, Konpentsazio Batzarrean parte hartzea erabaki zuela. Horri buruz, aipatu beharra dago ezen, lur hori arloan integratu behar bada ere, jabeak desjabetzea eska dezakeela, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 162. artikuluari jarraituz, zeinean honako hau esaten baita: "*batzordean sarturik dauden eta sisteman parte hartu nahi ez duten jabeek udalari eskatzen ahalko diote, desjabetu dakizkiela beren ondasun eta eskubide ukituak batzorde horren alde, horrela beraiek batzordetik kanpora geldi daitezzen, ondorio guztietarako, eskaera egiten duten egunetik*".

Portzentaje hori dela-eta bi lurzati jaso zituen eta zegozkien derramak hartu zituen bere gain; derrama horiek, errekaruekin, kostuekin eta interesekin, momentuz, 1,4 milioi euro egiten dute. 0,96 milioi euro egiten duten ordainketak egiten ditu, eta lurzatietakoa bat enbargatu diote, 1,16 milioiko katastro-balioarekin eta 2,12 milioiko tasazioarekin, judizialki erreklamaturako zorraren 0,39 milioi ordaintzeko; 2017an Konpentsazio Batzarri esleitu zitzaion. Gaur egun, ordaintzeke dagoen zorra 53.942 eurokoa da.

Urbanizazio-kuoten ordainketarako, Kontzejuak 0,86 milioiko mailegu bat eskatu zuen 2008an. Hurrengo atalean egin dugu horri buruzko iruzkina.

V.3. 860.000 EUROKO MAILEGUA ETA GAZOLAZKO KONTZEJUAREN EGOERA EKONOMIKOA

2008ko azaroaren 7an, mailegu pertsonal bat kontratatu zen Caja de Ahorros y Pensiones de Barcelona (La Caixa) entitatearekin, 860.000 eurokoa, Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazio-ko Zuzendaritza Nagusiaren baimenarekin.

Mailegu horren ezaugarriak honako taula honetan aipatzen direnak dira:

Zenbatekoa	860.000
Emateko data	2008/11/07
Muga-eguna	2011/12/31
Interesak	Irekitzeko komisioa 2008/11/07tik 2008/12/31ra Aldiaren gainerakoa Atzerapenak
	% 0,25 = 2.150 euro % 5,75 Euriborra+0,75 20,50 %
Amortizazioa	Emandako kapital guztiaren amortizazioaren muga-egunean

Lehenengo klausulak honako hau ezartzen du: "*P-14 lurzatia, Gazolazko Jarduera Ekonomikoen Sektorearen Birzaitze Proiektutik heldu dena –Gazolazko mugapean dago, Zizur Zendea, eta Gazolazko Kontzejuari esleitu zitzaion–, mailegu honen amortizazioari atxikita dago*".

Maileguko 860.000 euroak kobratu ziren, eta haiekin Konpentsazio Batzarrean derramak ordaindu ziren, eta 2008tik 2015era, zenbait kontzeptu tarteko, 70.891 euro ordaindu ziren; hona hemen xehetasunak:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Irekitzeko komisioa	2.150
Notaria gastuak	579
Interesak	63.445
Errekurtsoaren lansariak	4.717
Guztira	70.891

Kontzejuak ez zuen mailegua ezeztatu muga-egunean, eta 2013an finantza-entitateak 1.198.665 euroko zor bat erreklamatu zuen judizialki. Printzipalari, maileguari, interesei, berandutza interesei, gastuei eta kostuei dagokie zenbateko hori. Titulu judizialen betearazpen bat izapidetu zen lehen instantzian, eta Kontzejuak aurka egin zion. Aurkaratze hori ezetsi egin zen, eta ezespena apelazioan berretsi zen.

Kontzejuak mailegu hori dela-eta daukan zorra honako hau da, 2015-12-31n, finantza-entitateak berretsitakoaren arabera:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Kapitala	860.000
Interes arruntak	4.741
Berandutza interesak	693.139
Gastu judizialak	23.270
Legelariaren lansariak	12.100
Prokuradorearen eskubideak	6.050
Guztira	1.599.300

Zenbateko hori, 2016ko abenduaren 31n, entitateak berretsitakoaren arabera, 1.734.666 eurokoa zen.

Laburbilduz, mailegu hipotekario bat eskatu orde, 860.000 euroko mailegu pertsonal bat itundu zen "Arlo Ekonomikoaren" derramak finantzatzeko, hiru urteko muga-eguneratzearekin, eta aurreikusitako zenaldi horretan Kontzejuari adjudikatutako lurzatiak saldu ahalko zirela.

Lurzatiak ez zirenez saldu, ezin zaio aurre egin maileguaren amortizazioari; horren berandutza-interesen ondorioz, ehuneko 20,5ekoak baitira, 2016ko abenduaren 31n zorraren zenbatekoa hasieran emandako kopuruaren bi halako da.

Banku-zorraz gainera, Kontzejuak 446.157 euro zor zizkion Konpentsazio Batzarrari, eta horietatik 392.608 euro Jarduera Ekonomikoen Arloko lurzati bat esleituz ezeztatu zituen.

Halaber, Kontzejuaren datuen arabera, 2015eko abenduaren 31n 51.859 euro zor zizkion Zendeako Udalari, Udalak kaleen zolatzea egin izanari zegozkionak. Zor hori 2006an du jatorria. Zor hori konpentsatzen joan da Udalak Kontzejuari egin beharreko ekarpenekin. 2016ko abenduaren 31n, Udalak berretsi du zorra 48.917 eurokoa dela.

Honako hauek dira Kontzejuaren ondasunak, katastroaren arabera:

Hiri-lurra	Katastroko balioa
Udaletxea	246.035
Lurzorua	906.604
Pilotalekua	17.301
Bulegoak	23.157
Biltegia	104.700
Hilerria	29.799
Ur biltegia	4.083
Jardueren sektoreko lurzatiak	1.295.261
Hiri-lurrak, guztira	2.626.940
Landa-lurra	Katastroko balioa
Landa-lurrak	22.747
Larreak	8.143
Larreak. Zuhaiztia	914
Pinudia	826
Fruta-arbolak	396
Zumardiak	321
Ezemankorra	278
Belardia	178
Landa-lurrak, guztira	33.803
Guztira	2.660.743

Kontuan hartuta Kontzejuaren urteko aurrekontuaren bolumena eta bere ondasunen balioa, eta kontuan hartuta, gainera, Konpentsazio Batzarrak bahitutako lurzatiak 1.156.824 euroko katastro-balioa duela, gure iritziz Kontzejuak ezin izanen die aurre egin, bere baliabideekin, ez urteko zorrari, ez eta banku-maileguaren printzipalari ere.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an
Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

I. ERANSKINA. AURREKONTU-BETETZEA 2008/2015

Deskribapena	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	13.066	1.361	1.342	1.128	1.249	1.021	244	279
4. Transferentzia arruntak	39.755	33.921	25.620	35.820	14.873	21.620	23.021	19.775
5. Ondare diru-sarrerak eta herri-lurren aprob.	13.138	16.604	16.634	18.785	16.267	14.865	14.883	11.018
6. Besterentzeak Inbertsio errealak			26.974					
7. Kapital-transferentziak	3.134							
9. Finantza-pasiboak	639.129	220.871	0					
Guztira	708.222	272.757	70.570	55.733	32.389	37.506	38.148	31.072

Deskribapena	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
1. Langile-gastuak	3.031	7.200	4.800	1.800	0	0	0	0
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	58.675	40.064	30.770	28.005	18.871	26.945	23.930	26.532
3. Finantza-gastuak		18.482	12.625	16.567	5.373	0	0	0
4. Transferentzia arruntak	48	50	48	48	47	47	41	41
6. Inbertsio errealak	645.379	315.810		175.230			7.465	39.562
7. Kapital-transferentziak	11.924							
8. Finantza-aktiboak								
9. Finantza-pasiboak								
Guztira	719.057	381.606	48.243	221.650	24.291	26.992	31.436	66.135

II. ERANSKINA. KONTZEJUBURUAK 9.000 EUROKO TXEKEA DELA-ETA EGINDAKO IDAZKIA.



Concejo de
31190 -- Gazólaz
(Navarra)

Operaciones: El talon de LA CAIXA 0.712.247-0 de fecha 25.1.08 y por un importe de 9.000 e., no tenemos referencia de lo que se ha pagado.
Talonario de LA CAIXA c/c 2100 4219 9 0 2200018526

LA PRESIDENTA DEL CONCEJO

M^a ISABEL COLOMA BILBAYUA

III. ERANSKINA. HAUTETSIEI ORDAINTZEAREKIN LOTUTAKO DOKUMENTUAK.

GAZOLAZ

DOCUMENTO DE OBLIGACIÓN DE PAGO

PERIODO CONTABLE 2009

NÚMERO DE DOCUMENTO 104

FECHA 31/12/2009

IMPORTE BRUTO 2.400,00	IVA 0,00	IMPORTE A APLICAR AL PRESUPUESTO 2.400,00
------------------------	----------	---

MOTIVO: Remuneraciones cargos electos 2S/2009

CÓDIGO DE APLICACIÓN 111.10001	DESCRIPCION DIETAS Y KILOMETRAJE
TEXTO Remuneraciones cargos electos 2S/2009	IMPORTE A CONTABILIZAR 2.400,00

TERCERO INTERESADO: NUEVO GAZÓLAZ	NIF
-----------------------------------	-----

CÓDIGO	DETALLE DESCUENTOS	IMPORTE
		0,00
		0,00
		0,00
		0,00

IMPORTE LÍQUIDO 2.400,00

REFERENCIA BANCARIA CAJA	IMPORTE LÍQUIDO 2.400,00	FECHA 31/12/2009
-----------------------------	-----------------------------	---------------------

FIRMA INTERVENTOR	FIRMA TESORERO	TOMA RAZON CONTABLE	FIRMA ALCALDE O CONCEJAL DELEGADO
-------------------	----------------	---------------------	-----------------------------------

DOÑA ISABEL COLOMA BILBATÚA, PRESIDENTA DEL CONCEJO DE
GAZÓLAZ,

CERTIFICO:

Que la agrupación electoral Nuevo Gazólaz ha recibido la cantidad de dos mil cuatrocientos euros (2.400,00 €) en concepto de retribución a los cargos electos, sirviendo el presente documento como recibo. El pago se ha realizado en efectivo.

Y para que conste emito la presente certificación, en Gazólaz a 31 de diciembre de 2009.

LA PRESIDENTA



D^a Isabel Coloma Bilbatúa

GAZOLAZ

DOCUMENTO DE OBLIGACIÓN DE PAGO

PERIODO CONTABLE 2010

NÚMERO DE DOCUMENTO 111

FECHA 31/07/2010

IMPORTE BRUTO 2.400,00	IVA 0,00	IMPORTE A APLICAR AL PRESUPUESTO 2.400,00
------------------------	----------	---

MOTIVO : Remuneraciones cargos electos

CÓDIGO DE APLICACIÓN 111.10001	DESCRIPCION DIETAS Y KILOMETRAJE
TEXTO Remuneraciones cargos electos	IMPORTE A CONTABILIZAR 2.400,00

TERCERO INTERESADO: NUEVO GAZÓLAZ	NIF
-----------------------------------	-----

CÓDIGO	DETALLE DESCUENTOS	IMPORTE
		0,00
		0,00
		0,00
		0,00

IMPORTE LÍQUIDO 2.400,00

REFERENCIA BANCARIA CAJA	IMPORTE LÍQUIDO 2.400,00	FECHA 31/07/2010
-----------------------------	-----------------------------	---------------------

FIRMA INTERVENTOR	FIRMA TESORERO	TOMA RAZON CONTABLE	FIRMA ALCALDE O CONCEJAL DELEGADO
-------------------	----------------	---------------------	-----------------------------------

DOÑA ISABEL COLOMA BILBATÚA, PRESIDENTA DEL CONCEJO DE
GAZÓLAZ,

CERTIFICO:

Que la agrupación electoral Nuevo Gazólaz ha recibido la cantidad de dos mil cuatrocientos euros (2.400,00 €) en concepto de retribución a los cargos electos, sirviendo el presente documento como recibo. El pago se ha realizado en efectivo.

Y para que conste emito la presente certificación, en Gazólaz a 31 de julio de 2010.

LA PRESIDENTA

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Isabel Coloma Bilbatúa', written over a horizontal line.

D^a Isabel Coloma Bilbatúa

GAZOLAZ

DOCUMENTO DE OBLIGACIÓN DE PAGO

PERIODO CONTABLE 2010

NÚMERO DE DOCUMENTO 112

FECHA 31/12/2010

IMPORTE BRUTO 2.400,00

IVA 0,00

IMPORTE A APLICAR AL PRESUPUESTO 2.400,00

MOTIVO : Remuneraciones cargos electos 2S/2010

CÓDIGO DE APLICACIÓN 111.10001

DESCRIPCION DIETAS Y KILOMETRAJE

TEXTO Remuneraciones cargos electos 2S/2010

IMPORTE A CONTABILIZAR 2.400,00

TERCERO INTERESADO: NUEVO GAZÓLAZ

NIF

CÓDIGO	DETALLE DESCUENTOS	IMPORTE
		0,00
		0,00
		0,00
		0,00

IMPORTE LÍQUIDO 2.400,00

REFERENCIA BANCARIA

IMPORTE LÍQUIDO

FECHA

CAJA

2.400,00

31/12/2010

FIRMA INTERVENTOR

FIRMA TESORERO

TOMA RAZON CONTABLE

FIRMA ALCALDE O CONCEJAL
DELEGADO

GAZOLAZKO KONTZEJUARI BURUZKO BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

LEHENA. Auditoria finantzarioari buruzko iritzia eta Kontzejuak 2015eko kontu orokorrean legez-kotasuna bete izanari buruzko iritzia.

Txostenak jasotzen duen bezala, Kontzejuko Batzarra da kontu orokorra egin eta aurkezteko erantzukizuna duena, halako moduz non aurrekontu-likidazioaren, ondarearen, emaitzen eta Gazolazko Kontzejuaren egoera finantzarioaren irudi zehatza emanen duen. 2015eko kontu orokorra 2016ko urriaren 24an onetsi zuen Kontzejuko Batzarrak. Batzar hori bera 2015eko erdialdetik ari zenez Kontzejua kudeatzen, kontuak egitea hari berari zegokion.

Kasu honetan, dirudienez eta txostenak jasotzen duen bezala, ez da aurrekontu-kontabilitateari buruzko araudia bete, eta, horrenbestez, 2015eko ekitaldiko kontuak ez du irudi zehatza ematen aurrekontu-likidazioari, ondareari, emaitzei eta Gazolazko Kontzejuaren egoera finantzarioari buruz. 2015eko kontu orokorra 2016ko urriaren 24an onetsi zuen Kontzejuko Batzarrak. Batzar hori bera 2015eko erdialdetik ari zenez Kontzejua kudeatzen, kontuak egitea hari berari zegokion.

Kasu honetan, dirudienez eta txostenak jasotzen duen bezala, ez da aurrekontu-kontabilitateari buruzko araudia bete, eta, horrenbestez, 2015eko ekitaldiko kontuak ez du irudi zehatza ematen ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu-likidazioari, eta Gazolazko Kontzejuaren 2015eko abenduaren 31ko egoera finantzarioari buruz, ez eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomikoei eta aurrekontukoei buruz ere.

Nire iritziz, aurrekontu-kontabilitateari buruzko araudia bete ez duena da 2015eko ekitaldiko kontuak egin eta onetsi duen Kontzejuko Batzarra; horrenbestez, guztiz arrotza zaidan kontua da, zeren eta ni ez bainengoen jada batzar horretan. Horrenbestez, alegatzeko ezer ere ez daukat horri buruz.

BIGARRENA. Kontzejuaren kontutik 2008ko urtarrilaren 25ean ateratako 9.000 euroko txekearen zertarakoa.

Kontuen Ganberak dio ez duela daturik, ez dokumentaziorik txeke horri eman zitzaion erabilerari buruzko iritzia emateko. Nabarmendu beharra dago Gazolazko Kontzejuaren kontuei buruzko dokumentazio guztia Zizur Zendeako Udalean zegoela, zeren eta Kontzejuak ez baitzuen langilerik. Udaleko langileak ziren Kontzejuko kontuak egin eta erredaktatzen zituena, eta dokumentazioa artxibatzen zuena.

Existitzen zen guztia hor zegoen, eta aurkitu ez bada edo galdu bada, hura gordetzen zuenaren erantzukizuna izanen da. Nik jada bere garaian adierazi nuen horri buruz gogoratzen nuen guztia, eta egia da kontabilitatean Kontzejuko kutzako kontuan egindako diru-sarrera baten gisara jaso zela.

HIRUGARRENA. "Gazolazko Jarduera Ekonomikoen Arloa" sektorearen sorreran gertatutako guztiari buruz alegatzeko ezer ez daukat.

Iruñean, 2017ko ekainaren 7an

Sin.: Isabel Coloma Bilbatua

AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eskerrak eman nahi dizkiogu Gazolazko Kontzejuko buru ohiari aurkeztu dizkigun alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen.

Iruñean, 2017ko ekainaren 12an

Lehendakaria: Asunción Olaechea Estanga

